

Fonetikak bideratutako aldaketa fonologikoak

(Phonological changes induced by phonetics)

Irurtzun Sviaguincheva, Aritz

UPV/EHU. Filologia eta Geografia-Historia Fak. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila. Unibertsitateen Ibilbidea, 5. 01006 Gasteiz

BIBLID [1137-4454 (2006), 21; 195-208]

Jaso: 04.10.20
Onartu: 05.10.18

Erreterriako euskararen prosodiaren garapena aztertzen dut azentuaren datu garaikideak Mitxelenak 1976an jasotakoekin konparatuz. Erro ez markatuak Mitxelenak azentugabetzat jotzen bazituen ere bigarren silaban FO igoera nabarmentzen da, bai egungo datuetan, baita Mitxelenarenetan beretan. Puzle hori azaltzeko, J.I. Hualderen hipotesi bati jarraikiz FO igoera horren fonologizazio prozesu bat gertatu dela iradokitzen dut, antzinako doinu-azentu sistema batetik egungo indar-azentu sistemara pasatuz.

Giltza-Hitzak: Azentua. Intonazioa. Diakronia. Aldaketa.

Estudio el desarrollo de la prosodia del euskara de Rentería comparando datos del acento contemporáneo con los recogidos por Michelena en 1976. Aunque Michelena consideraba sin acento las raíces no marcadas, se señala la subida de FO en la segunda sílaba, tanto en los datos actuales como en los del propio Michelena. Para explicar este puzzle, siguiendo la hipótesis de J.I. Hualde, sugiero que se ha producido una fonologización de esa subida de FO, habiéndose pasado de un antiguo sistema de acento tonal al sistema actual de acento de intensidad.

Palabras Clave: Acento. Entonación. Diacronía. Cambio

Etude du développement de la prosodie de l'euskara de Renteria, comparant les données de l'accent contemporain avec ceux recueillis par Michelena en 1976. Bien que Michelena estime que les racines non marquées sont sans accent, on signale la montée de FO dans la seconde syllabe, aussi bien dans les données actuelles que dans celles de Michelena même. Pour expliquer ce puzzle, en suivant l'hypothèse de J.I. Hualde, je suggère qu'il s'est produit une phonologisation de cette montée de FO, car on est passé d'un ancien système d'accent tonal au système actuel d'accent d'intensité.

Mots Clés: Accent. Intonation. Diachronie. Changement.

1. SARRERA¹

Artikulu honetan Erreneriako euskararen fonologia prosodikoaren garapenean argi pixka bat ematen saiatuko naiz azentuaren datu garaikideak orain arte aztertu gabeko joan den mendeko datuekin konparatuz. Lanaren egitura hauxe da: bigarren atalean literaturan aurreko mendeko bigarren erdialdeko Erreneriako azentuari buruz esan dena bilduko dut. Hirugarren atalean datu garaikideak aurkeztuko ditut bigarren atalekoekin konparatze-ko. Laugarren atalean K. Mitxelenak 1976an egindako grabaketa batzuen azterketa aurkeztuko dut eta bosgarren atalean, Mitxelenaren eta besteren Erreneriako azentuaren deskripzioak Mitxelenaren grabaketen datuekin eta datu garaikideekin konparatuko ditut azentu patroia nola eta zergatik aldatu den iradokiz. Azkenik, seigarren atalean orotariko ondorioak heldu dira.

2. AURREKARIAK

Erreneria eta inguruetakoz azentu patroiak, eta beste euskalki guztienak oro har, arreta gutxi jaso du euskalarien eskutik oraintsu arte. Gutxi dira han hemenka aurki daitezkeen aipuak eta hauek ez dira oso zehatzak izaten. Erreneria eta inguruetakoz azentu patroiaz arduratu direnen artean Nils M. Holmer suediarra eta K. Mitxelena erreneriarra ditugu, eta biek antzeko patroia bat deskribatzen dute, Holmerren hitzetan:

(1)

“En los especímenes de Rentería y Oyarzun, el acento no va notado si no tiene marcada fuerza. Los naturales de estos puntos hablan con una entonación muy llana (comp. § 15), por lo que el acento tónico de dichos dialectos –que sin duda en cuanto al acento, se relacionan con los demás de Guipúzcoa–, parece poco definido”.

(Holmer 1964 [1991], 147-149 oin-oharra)

Mitxelenak ere, Erreneriako azentuaren berri hainbat idazkitan ematen du [ik. Mitxelena (1958, 1972, 1976, 1985)]. Autore honek, hitzen prosodia nahiko laua dela baieztatzean Holmerrekin bat badator ere, patroia hau erro “ez markatuetakoa” dela zehazten du, erro “markatuetan” gainbeherako doina dagoela defendatuz:

1. Ikerketa lan hau MCYT-FEDERen FF2002-04238-C02-01 proiektua eta Eusko Jaurlaritzaren doktoradutza aurreko dirulaguntza bati esker garatu da. Nire eskerrik bihotzetikoenak adierazi nahi dizkiet Gorka Elordieta eta José Ignacio Hualderi nire azterketa prosodikoetan ematen didaten laguntza eta akuilukadengatik; halaber, mila esker Deustuko Unibertsitatean irakasle eta maisu izan nuen Elixabete Perez Gazteluri Mitxelenaren inkestetako grabazioak lortzen laguntzeagatik eta Mitxelenaren hizkuntzalaritzaz irakatsi didan guztiagatik. Artikulu honetan daudekeen hutsegite guztiak nireak dira.

(2)

“Noun forms fall, as far as the accentual pattern goes, into two classes: words belonging to the unmarked class, to put it in Jacobsen’s terms, *characterized by a sustained accent*, and words with a marked accent, *signaled by a falling contour*”².

Bi hitz multzoen arteko alde, Mitxelenaren hitzetan, ez litzateke azentuaren kokagune desberdinaren arabera, bi azentu sistema erabat desberdinen arabera baizik:

(3)

“Es lícito adelantar, de todos modos, que la diferencia entre *basuá* y *basuà* o *galerá* y *galerà* [...] tiene poco que ver con la que se observa entre cast. *término*, *termino* y *terminó*, por ej. No es que haya una sílaba claramente acentuada o, en otras palabras, que se diferencie de las demás de la palabra por un énfasis especial: hay, más bien, dos configuraciones distintas que como tales, en cuanto totalidades, se oponen la una a la otra”³.

Eta konfigurazio desberdin hauek erro “markatu” eta “ez markatu” multzo taxonomikotan biltzen dira, Mitxelenaren beraren hitzetan:

(4)

“The unmarked type deserves to be called so, since it is the pattern to which is adjusted the pattern of accentuation of the bulk of the indefinite and definite singular nouns. The only function of this pattern is to mark [-plural]. [...] The [marked class] consists of, on the one hand, all plurals, and, on the other, some scattered items, rather refractory to classification: namely loanwords, not all of them recent, certain suffixed nouns, nouns with spatial connotation, and some others”⁴.

Laburbilduz, deskribatzen zaigun sisteman bi motatako hitzak ditugu: (i) azentu-patroi nagusiari dagozkionak (inongo nagusitasun prosodikorik ez dutenak) eta (ii) azentu-patroi markatukoak (hitz eta morfema talde itxi bat (lokatiboak, pluralak...) eta azentua lehenengo silaban izaki gainbeherako doinua dutenak). Bosgarren atalean argudiatuko dudana bezala, deskribatzen zaigun sistema hau gaur egun Bizkaiko Iparraldean aurki ditzakegun doinu-azentu bariatateen oso antzekoa da [(ik. Hualde (1989, 1999)], Elordieta (1997, 1998, 2003) edota Gussenhoven (2004, 9. kap.) besteren artean).

Jarraian, datu garaiak ikusiko ditugu deskripzio klasikotik nola aldenitzen diren azpimarratzeko.

2. Mitxelena, 1972 (1987), 236. orria. Azpimarrak nireak dira.

3. Mitxelena (1985), 579. orria.

4. Mitxelena (1972), 236. orria.

3. DATU GARAIKIDEAK

Maite Etxenikek argitaratutako “Luis Mitxelena zenak utzitako langaia” hartuz, egungo Errenteriako euskaldunen prosodiaren azterketa bat burutu nuen⁵. Lan honetan, Etxenike (1988)-n argitaratutako Mitxelenaren hitz zerrenda bitarra (markatu/ez markatu) hartu eta egungo sei hiztun (adinaren arabera hiru taldetan bilduak, A eta B edadekoak, C eta D helduak eta E eta F gazteak) galdekatu nituen Mitxelenak deskribatutako paradigma eta gaur egungo errenteriarrek daukatena zertan aldentzen diren ikusteko. Galdetegia, guztira 1.080 token lexikoz osatua zegoen (999 item desberdin + 81 erre-pikapen galdetegiaren pare-(sasi)minimoen egitura mantentzeko); adibidez:

(5)

Ez markatuak:

basua ‘el bosque’

iltzia ‘el clavo’

egosiya ‘cocido’

ariya ‘el hilo’

Markatuak⁶:

basuà ‘el vaso’

iltzià ‘morirse’


egokiyà ‘apropiado’

ariyà ‘la oveja’

Galdeketa emaitzek Mitxelenak deskribatutako erroen sistema bitar markatu/ez markatu hori bizirik dagoela erakusten badute ere, hauen azentu patroia Mitxelenak eta Holmerrek deskribatutakoetatik desberdina da argi eta garbi: gazte, heldu, zein edadetuengan hitz guztiek dute azenturen bat: (i) Erro ez markatuetan [+2] azentuera, hau da, azentua hitzaren ezkerreko mugatik bigarren silaban agertzen da eta (ii) Erro markatueta [+1] azentuera, hau da, hitzaren ezkerreko mugatik lehenengo silaban:


(6)

Erro ez markatuak [+2]



o. áin. gu. a.

Erro markatuak [+1]



kó. rri. ka.

5. Ikusi Irurtzun (2002, 2003).

6. Hemen Mitxelena (1972)-k Jacobsenenengandik hartutako notazioa erabiltzen da, hau da “aaaaaà” azentua lehenengo silaban erortzen dela adieratzeko.


Gainera, bi hitz multzoen arteko asimetria handia nabari da, izan ere, Mitxelenarentzat erro markatuak berak prestatutako galdetegiaren %47.97 baziren ere⁷, A-B hiztunentzako %35.76, C-D hiztunentzako %20.40 eta E-F hiztunentzako % 20.70. Beraz, argi ikusten da erro markatuen multzoa txikituz doala.

Honenbestez, erro markatuetako azentu patroia mantendu bada ere erro ez markatuetakoak aldaketa handia pairatu du azken 20 urteotan, Mitxelenak deskribatutako patroia eta gaur egun aurkitutakoa erabat desberdinak direlako (nagusitasunik eza Mitxelenarentzat eta gailur toniko bat bigarren silaban gaur egun):

(7)


Mitxelenaren “Sustained accent”:

Nagusitasunik ez



Gaur egungo [+2]:

H*



Datuen aniztasun honek azalpena behar du; izan ere, nola da posible honelako aldaketa fonologiko bortitza 35 urtetan egungo A eta B hiztun edadetuek ere azentu gailurra bigarren silaban kokatzen badute?

Jarraian, Mitxelenak bere ikerketetan egindako inkestetako grabazioetako datuak aztertuko ditut egungo patroia melodikoekin konparatzeko.

4. MITXELENAREN GRABAKETAK

4.1. Grabaketak

K. Mitxelenak, Mitxelena (1981 [1988])-n dioskunez, 1967ko udan inkesta batzuk egin zituen Erreterria eta inguruetan azentuaren inguruko datuak biltzeko. Inkesta horietako elkarrizketa batzuk cassette-etan grabatu zituen eta horietan oinarritu zen bere azterketetarako. Horixe zen hain zuzen ere bere langai nagusietako bat hil zenean, eta bere apunte eta oharrak, “Stress and Pitch” zioen karpeta batean pilatutakoak, M. Etxenikek argitaratu zituen 1988an (ik. Etxenike (1988)). Apunte horietan agertzen den sistemaren deskribapena ere bigarren atalean aurkeztutakoa da non hitz ez markatuek ez duketen batere nagusitasun prosodikorik. Honela bada, eta azentu siste-

7. Gogoan hartu behar da hau Mitxelenak prestatutako pare-(sasi)minimoen hitz zerrenda bat zela eta erro markatu eta ez markatuen batz besteko balioak ezin daitezkeela Erreterriako euskararen lexikoari egotzi, erro ez markatuak markatuak baino askoz gehiago direlako (ikus 4. aipamena). Batz besteko hauek beraz, erro markatuen galera argi uzten badute ere soilik berariaz prestatutako hitz zerrenda horri dagozkionak dira.

ma nola eta zergatik aldatu den aztertzeko, Mitxelenaren beraren grabazio horiek aztertzea begitandu zait aproposena (horretarako grabazioak Elixabete Perez Gazteluri esker lortuta). Ondoko atalean laburbiltzen ditut bertan aurkitutakoak⁸.

4.2. Datuak

Bigarren atalean esan bezala, Mitxelenak honako sistema prosodikoa aurkezten digu Erretereriako euskara deskribatzean: bi motatako hitzak daude:


- (i) Hitz ez markatuak (Mitxelenaren hitzetan “sustained accent” batez ahoskatzen direnak).
- (ii) Hitz markatuak (Mitxelenaren hitzetan “falling contour” batez ahoskatzen direnak).

Lehenengoen artean hitzen gehiengoa dagoke eta bigarrenengoen artean maileru zahar eta berri batzuk, leku-izenak, plural guztiak eta beste zenbait erro.

Berak egindako grabaketei dagokienez, bi multzoak argi eta garbi desberdintzen dira, eta galdekaturak den hitzuna ere bikote minimoen kasuan biak azentuen arabera desberdintzen ditu. Haatik, harrigarriki, erro ez markatuen doinu ereduak Mitxelenak hainbatetan deskribatutakoaren oso desberdina da berak “sustained accent” zegoela esaten zuen tokian oinarritzko maiztasunaren gorako mugimendu argiak ikusten direlako. Artikulu honen luzera-murriztapenak direla-eta adibide bakan batzuk besterik ez ditut hemen emango; beraz, eta eskematikoki, hauxe da Mitxelenak egindako grabaketetan agertzen diren bikoteen azentuereduak⁹:


(8)

Erro ez markatuak



as.té.ko 'por semana'

Erro markatuak



ás.te.ko 'para empezar'

8. Ikus Irurtzun (prestakuntzan) azterketa xeheago batentzat.



9. Oinarritzko maiztasuna ateratzeko Scicon R&D-ren PitchWorks softwarea erabili da (8.3 bertsioa).

Atzizki pluralgilearen markatutasunari dagokionez hona hemen paradigma:

(9)

Mugagabea

Mugatu plurala



i.rú.tan ‘tres veces’

í.ru.tan ‘a las tres’

Lehenik eta behin, bukaeran FO igoera nabarmena badago ere, hau ez dugu inongo hitz bukaerako azentuarekin nahasi behar, izan ere elkarriketatua hitz zerrenda bat irakurtzen ari da eta hitz bukaerako gorakada hori “zerrenda-intonazioaren” ezaugarri nagusietako bat da eta ez du zerikusi zuzenik hitzaren azentuaren kokagunearekin (ik. Ladd (1978, 183-184 or.)). Azentuari dagokionez, berriro ere erro ez markatueta oinarritzko maiztasunaren gorakada nabarmena ikus daiteke bigarren silaban eta mugatu pluralen nagusitasun prosodikoa lehenengo silaban gertatzen da azkenekoan ere igoera sumatuz.

Bestalde, atzizki pluralak eragiten duen azentuaren mugimendua erakusteko Mitxelenak, Etxenik 1988n argitaratutako zerrendetan egitura segmental bera duten bi esaldi kontrajartzen ditu. Esaldi hauetan ‘gizon’ izena ergatibo singularraren ‘-AK’ eta absolutibo pluralaren ‘-AK’ atzizkiekin agertzen da pluralaren azentu-mugimendua irudikatzeko. Hauek 10a eta 10b-n glosa gramatikalekin ematen diren adibideak dira:

(10a) *Gizonak ekarri ttu.*

(10b) *Gizonak ekarri ttu.*

Gizon-ERG_(SG) *pro* ekarri ditu


pro gizon-ABS_(PL) ekarri ditu

‘El hombre los ha traído’


‘Él/Ella ha traído a los hombres’

Mitxelenaren grabazioetan aurki daitezkeen 10a eta 10b-ri dagozkion esaldien FO uhinak hauek ditugu:

(10a') *Gizonak ekarri ttu* 'El hombre los ha traído'



(10b') *Gizonak ekarri ttu* 'Él/Ella ha traído a los hombres'



Aurkitzen dugun paradigma honakoa da: ergatibo singularreko forman (10a) oinarrizko maiztasuneko gorakada nabaria ikusten da 'gizonak'-en bigarren silaban (borobildua irudian) eta absolutibo pluraleko forman aldiz (10b), F0 gorakada bat aurkitzen bada ere, ez da agertzen bigarren silaban lehenengoan baizik. Areago, 10a-ko 'gizonak'-en azkeneko silaban aurreko

silabarekiko oinarrizko maiztasunaren beherakada nabarmena ikusten da eta 10-b-n, aldiz, oinarrizko maiztasunak gora egiten du 'gizonak'-en azke-neko silaban¹⁰.

Berriro ere, Mitxelenak egindako deskripzioaren alderdi bat baizik ez da zehatza; bi hitz multzoen artean alderik badagoela alegia. Eta berriro ere, datuen natura fonetikoaren berri ematean ez dateke aski zehatza berak "sustained accent" deskribatzen duen tokian FO gailur agerri delako.

Bere grabazioetan aurki dezakeguna laburbilduz, Mitxelenak aurkezten digun sistema ez dator guztiz bat berak egindako grabazioen FO uhinekin, berak hitz ez markatuentzako inongo nagusitasun prosodikorik eza deskribatzen zuen tokian bere grabaziotan –gaur egungo Erreenteriako euskaran bezalatsu– oinarrizko maiztasunean gorakada nabariak aurkitzen direlako bigarren silaban¹¹. Jarraian, bosgarren atalean, ezegokitasun honen arrazoiak zeintzuk diren argitzen saiatuko naiz Mitxelenaren garaiko Erreenteriako euskaldunen eta egungoen artean fonetikak bideratutako aldaketa fonologikoak gertatu direla proposatuz.

5. BERAZ?: FONETIKAK BIDERATUTAKO ALDAKETA FONOLOGIKOAK

Ikusi berri dugu Mitxelenak "sustained accent" bezala deskribatutakoan ere, gaur egungo hitzunen produkzioetan bezalatsu, FO gorakada nabarmenak agertzen direla bigarren silaban eta honek, printzipioz, Mitxelena bere deskripzioetan tronpatu zela esan nahiko luke. Halaz guztiz, ez dut uste hala denik eta hemen argudiatuko dut Mitxelenak deskribatzen zuena bere hitzun bezalako intuizioen deskribapen zehatza dela eta hain zuzen ere aurkitzen dugun patroia antzinako doinu-azentu barietate bat eta egun aurkitzen dugun indar-azentu barietatearen trantsizioa bera dela. Honela bada, egin nahi den argudioa honakoa da: grabaketa horietan ikusten ditugun bigarren silabako FO igoerak fonetikoki hor badira ere fonologikoki beren estatusa zehaztu gabe dutela; eta gaur egun azentu gorakadatzat dugun FO mugimendu hori Mitxelenak grabaziook egin zituenean beste izaera bateko doinu gertakaria zela: Bizkaiko Iparraldean aurki daitekeen goiko sintagma-doinu (*phrasal high*) baten aztarna bat (eta hala, "sustained" bezala hautematen zen, ez azentu bezala).

Argudio hau garatzeko, lehendabizi gaur egungo Bizkaiko Iparraldeko doinu-azentuzko barietateen azaleko deskripzioa egingo dut (euskalki

10. Paradigma honek Hualde (2004)-n aurkeztutako egungo Goizuetako azpieuskalkia eta garai bateko Oiartzuera gogoratzen ditu (bi herriak Erreteriaren mugakide dira). Barietate hauek, doinu azentuzko barietate eta indar-azentuzko barietateen arteko sistema mistoak ditugu eta, indar-azentuzko barietateetan bezala, erro markatuak eta ez markatuak azentuaren kokagunearen bidez desberdintzen badira ere, bi hitz moten arteko doinu aldea ere bada pluraletan adibidez beste goiko azentu bat agertzen delako.

11. Aipagarria ere bada patroia haxe grabazioetan agertzen diren Mitxelenaren beraren aho-tsean ere agertzen zaigula argiki.

harik eta silaba azentudunen bat topatzen duen arte. Hitz eta azentu sintagma bukaerako silabak duen beheranzko (H*+L) azentua galdegaigunean ego-
nez jasotakoa da.

5.2. “Hualderen Hipotesia”

Erdialdeko azentu sistemaren aldaketa azaltzeko J.I. Hualdek antzinako Erdialdeko euskararen azentuera eta gaur egungo Iparraldeko Bizkaieraren azentuarekin lotu du hainbat lanetan (Hualde, 1993, 1995, 1997 eta 2004 besteak beste). Izan ere, bada ebidentziarik aurreko garaietan Erdialdeko euskara gaur egungo Bizkaiko Iparraldekoaren oso antzekoa zela baieztatzeko: alde batetik, XVIII. mendeko Larramendik Gipuzkoarako deskribatzen duen azentu sistema¹² gaur egun Bizkaiko Iparraldean aurkitzen dugunaren pare-parekoa da, non, singularrean hitz bukaerako azentua dugun eta pluralaren kasu-markak eranstea gehitutako atzikiaren aurreko silabakoa (hau da, erroaren azkenekoan). Ikusi Hualde (1991)-n azaltzen den konparaketa:

(12)

Larramendi (XVIII. Mendeko Gipuzkera):

	<i>Singularra</i>	<i>Plurala</i>
ABS:	guizoná	guizónac
ERG:	guizonác	guizonác
DAT:	guizonarí	guizónai
GEN:	guizonarén	guizónen(a)

Gaur egungo Getxoko euskara:

	<i>Singularra</i>	<i>Plurala</i>
ABS:	gisoná	gisonák
ERG:	gisonák	gisonák
DAT:	gisonarí	gisonari
GEN:	gisonán	gisonan

Beste alde batetik, Mitxelenak egiten digun Errenteriako euskararen deskripzioa dugu (ik. 2. atala), non 5.1 atalean deskribatu berri dudan Lekeitioko euskararen oso antzekoa den patroia azaltzen zaigun (erro azentudun/azentugabe desberdintzea, pluralaren azentua mugitzea...).

Beraz, Hualdek egungo Erdialdeko euskararen erro ez markatuen [+2] azentuera berrikuntzat jotzen du, aurreko garai baterako gaur egun Bizkaiko Iparraldean aurki daitezkeen doinu-azentuzko sistema bertsua postulatuz. Gauzak honela, erantzun beharreko galdera hau da: nola pasa da Erdialdeko euskara doinu-azentuzko barietate bat izatetik indar-azentuzko barietate bat izatera?

12. Ik. Larramendi (1729), hala nola Hualde (1991, 2004). Ikusi ere Larramendiren azentu deskribapenez erabat ikuspegi desberdina duen Txillardegi (1984).

ERREFERENTZIAK

- BECKMAN, Mary, *Stress and Non-stress Accent*, Dordrecht: Foris, 1986.
- ELORDIETA, Gorka, "Accent Tone and Intonation in Lekeitio Basque", F. Martínez-Gil eta A. Morales-Front (arg.), *Issues in the Phonology and Morphology of the Major Iberian Languages-en*, Washington D.C: Georgetown University Press, 1997, 3-78 or.
- ELORDIETA, Gorka, "Intonation in a pitch accent variety of Basque", *ASJU XXXII-n*: 1998, 511-569 or.
- ELORDIETA, Gorka, "Intonation", J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque-n*, Berlin: Mouton De Gruyter, 2003a
- ELORDIETA, Gorka, "The Spanish intonation of Speakers of a pitch-accent variety of Basque", *Catalan Journal of Linguistics 2-n*, 2003b, 67-95 or.
- ELORDIETA, Gorka eta José Ignacio HUALDE, "Experimental test of a hypothesized diachronic change in Basque accentuation", M.J. Solé, D. Recasens, eta J. Romero (arg.), *Proceedings of XVth ICPHS*, Bartzelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 2003.
- ETXENIKE, Maite, "Stress and pitch (Luis Mitxelena zenak utzitako langaia)", *Euskera 23-2-n*: 1988, 495-521 or.
- FACE, Timothy, *Intonational Marking of Contrastive Focus in Madrid Spanish*, Muenchen: Lincom Europa, 2002.
- GAMINDE, Iñaki, *Euskaldunen Azentuak*, Bilbo: Labayru Ikastegia, 1998.
- GUSSENHOVEN, Carlos, *The Phonology of Tone and Intonation*, Cambridge: Cambridge University Press, 2004.
- HOLMER, Nils M., *El idioma vasco hablado*, ASJU-ren Gehigarriak V, Donostia eta Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, 1991 (2. arg.).
- HUALDE, José Ignacio, "Acentos Vizcaínos", *ASJU XXIII-n*, 1989: 275-325 or.
- HUALDE, José Ignacio, "Manuel de Larramendi y el acento vasco", *ASJU XXV-n*, 1991, 737-749 or.
- HUALDE, José Ignacio, "On the Historical Origin of Basque Accentuation.", *Diachonica 10-n*: 1993, 13-50 or.
- HUALDE, José Ignacio, "Reconstructing the Ancient Basque Accentual System: Hypotheses and evidence", J. I. Hualde, J. A. Lakarra eta R. L. Trask (arg.), *Towards a history of the Basque language-n*, , Amsterdam: John Benjamins, 1995, 171-188 or.
- HUALDE, José Ignacio, *Euskararen Azentuerak*, ASJU-ren Gehigarriak XLII, Donostia eta Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, 1997.
- HUALDE, José Ignacio, "Basque Accentuation", H. van der Hulst (arg.), *Word Prosodic Systems in the Languages of Europe-n*, Berlin & New York: Mouton de Gruyter, 1999, 947-993 or.
- HUALDE, José Ignacio, "From phrase-final to postinitial accent in Western Basque", P. Fikkert eta H. Jacobs (arg.), *Development in Prosodic Systems-en*, Berlin: Mouton De Gruyter, 2003, 249-281 or.
- HUALDE, José Ignacio, "Estado actual de las investigaciones sobre la acentuación en lengua vasca", *Oihenart 21*, 2006, 149-177 or.

- IRURTZUN, Aritz, "Stress and Pitch: Erreneriako azentu eta intonazioa", eskuizkribua: Euskal Herriko Unibertsitatea eta LEHIA, 2002.
- IRURTZUN, Aritz, "Stress on Accent; Erreneria Basque Revisited", M.J. Solé, D. Recasens, eta J. Romero (arg.), *Proceedings of XVth ICPHS-n*, Bartzelona: Universitat Autònoma de Barcelona, 2003, 2075-2078 or.
- IRURTZUN, Aritz, "Variation in the Diachrony of Central Basque Accentuation", eskuizkribua: Euskal Herriko Unibertsitatea eta LEHIA (prestakuntzan).
- LADD, Dwight Robert, *The Structure of Intonational Meaning*, Bloomington & Londres: Indiana University Press, 1978.
- MITXELENA, Koldo, "Nikolas Ormaetxea Euskaltzaindian Sartzean", *Euskera 2-III*, 1958, 36-43 or. [B. Urgell, P. Altuna, J. Lakarra eta I. Sarasola (arg.), 1988-n berrargitaratua, , 137-169 or.]
- MITXELENA, Koldo, "A note on old Labourdin accentuation", in *ASJU VI*, 1972: 110-120 or. [Mitxelena 1987-n berrargitaratua: 235-244 or.]
- MITXELENA, Koldo, "Acentuación alto-navarra", *Fontes Linguae Vasconum* 23-n, 1976: 147-162 or. [Mitxelena 1987-n berrargitaratua: 245-260 or.]
- MITXELENA, Koldo, *Fonética Histórica Vasca*, ASJU-ren Gehigarriak IV, Donostia eta Bilbo: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Euskal Herriko Unibertsitatea, 1985, (3. arg.).
- MITXELENA, Koldo, *Palabras y textos*, Leioa: EHUko Argitarapen Zerbitzua, 1987.
- MITXELENA, Koldo, "Galdegaia eta Mintzagaia Euskaraz", *Euskal linguistika eta literatura: Bide berriak-en*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1981, 57-81 or. [B. Urgell, P. Altuna, J. Lakarra eta I. Sarasola (arg.), 1988-n berrargitaratua, 137-169 or.]
- URGELL, Blanka, Patxi ALTUNA, Joseba LAKARRA eta Ibon SARASOLA (arg.), *Koldo Mitxelena. Euskal Idazlan Guztiak VI: Hizkuntzalaritzaz I*, Zarautz: Kriselu, 1988.
- TXILLARDEGI, *Euskal Azentuaz*, Donostia, Elkar, 1984.